

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

NEKAZARITZA, ARRANTZA
ETA ELIKADURA SAILA

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,
PESCA Y ALIMENTACIÓN

REFORMA DE LA PAC: PAGO ÚNICO 2005-2013

NPBaren ERREFORMA: ORDAINKETA BAKARRA



Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia

Departamento de Agricultura Nekazaritza Saila



Bizkaiko Foru
Aldundia

Nekazaritza
Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de
Agricultura



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua
Departamento para el Desarrollo del Medio Rural

NPBaren ERREFORMA: HELBURUAK ETA MEKANISMOAK

Oinarrizko legea:

Kontseiluaren 1.782/2003 Erregelamendua (EE), 2003ko irailaren 29koa

HELBURUAK

- Merkatuari laguntzeko neurriak sinplifikatzea.
- Ekoizpen-askatasuna ezartzea, merkatu lehiakorra lortzeko.
- Diziplina finantzarioko mekanismoak ematea, merkatua eta zuzeneko laguntzak indartzeko gastuak txikitzeko.
- Ingurumena babestea eta hobetzea.

MEKANISMOAK

- Laguntza banantzea
- Ordainketa bakarra, ustiategiko.
- **ORDAINKETA-ESKUBIDEA** ezartzea.
- Baldintzazkotasuna.
- Modulazioa.
- Ustiategiei aholku ematea.
- Landa Garapeneko Erregelamendu berria.

ORDAINKETA BAKARRAREN ONURADUNAK

Hauk izango dute ordainketa bakarreko erregimenari heltzeko aukera:

- a) **2005eko maiatzaren 17ko Aginduaren arabera identifikatutako nekazariak. Agindu horren bidez, administrazio-prozedura antolatzen da EAEn laguntza-eskubideak behin-behineko ezartzeko eta eskubide horien onuradunak zein diren identifikatzeko.**
- b) **2005eko maiatzaren 17ko Aginduaren arabera identifikatuta egon gabe, a) paragrafoan adierazitako nekazari batengandik ustiategi bat edo ustiategi baten zati bat jasotzen duten nekazariak.**
- c) **Erreserba nazionaleko eskubideen esleipena jasotzeko eskubidea duten nekazariak.**

ORDAINKETA BAKARRA: SISTEMA BERRIA - KONTZEPTU BERRIAK

ORDAINKETA BAKARRA, USTIATEGIKO

Erreformaren funtsezko elementua da. Ordainketa hori ekoizpenarekiko independentea da; hots, ekoizpenetik BANANDUTA dago, osorik edo partzialki, baina nekazaritza- eta ingurumen-jarduera onekin lotuta dago: BALDINTZAZKOTASUNA (20/2005 Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Nekazaritza Politika Bateratuaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren zuzeneko laguntzei zenbait baldintza aplikatzeari buruzkoa).

ORDAINKETA BAKARREKO ESKUBIDEAK

Ordainketa-eskubide horiek zuzeneko laguntzen sistema ordezkatzan dute. ERREFERENTZIA-ALDIan jasotako laguntzak (ERREFERENTZIA-ZENBATEKOA) aintzat hartuta kalkulatuta daude.

ORDAINKETA BAKARRA: ORDAINKETA BAKARREKO ESKUBIDEAK

ESKUBIDE-MOTAK

Eskubide normalak:

Erreferentzia-aldian laguntza-eskaeran azalerak deklaratzeko eskatzen duen laguntza-erregimen batetik zuzeneko ordainketak jaso zituzten nekazariak lortzen dituzte.

Eskubide bereziak:

Erreferentzia-aldian eta 1782/2003 Erregelamenduaren 47. artikuluan zehaztutako erregimenetako batetik soilik (horietan, laguntza-eskaeretan, ez zen beharrezkoa azalerak deklaratzeko) zuzeneko ordainketak jaso zituzten nekazariak lortzen dituzte.

Erretiratze-eskubideak:

Erreferentzia-aldian ezkoizpenetik ustiatetik lurren zati bat kentzera behartuta egon ziren nekazariak lortzen dituzte.

ORDAINKETA BAKARRA: ORDAINKETA BAKARREKO ESKUBIDEAK

ESKUBIDE BEREZIAK

Erreferentzia-aldian bazkarako azalerak deklaratu ala ez, honako ustiategi hauei esleituko zaizkie eskubide bereziak:

- Haragirako behi-azienda soilik duten 15 ALU baino gutxiagoko ustiategiei.
- Esne-behiak soilik dituzten ustiategiei.
- Ardi- eta ahuntz-aziendak soilik dituzten ustiategiei.
- Esne-behiak eta/edo ardi- eta ahuntz-aziendak eta/edo haragi-behiak soilik dituzten 15 ALU baino gutxiagoko ustiategiei.

ESKUBIDEEN KOPURUA ETA BALIOA (1)

ESKUBIDE NORMALAK ETA ERRETIRATZEKOAK: Eskubideen balio nominala lortzeko, zenbateko murriztua zati batez besteko azalera egin behar da.

- ✓ Batez besteko azaleraren balioa osokoa bada:
 - Eskubide-kopurua: batez besteko azalerarekin bat dator.
 - Partaidetza-ehunekoa: %100ekoa.

- ✓ Batez besteko azaleraren balioa EZ bada osokoa:
 - Eskubide-kopurua: batez besteko azaleraren osoko balioarekin bat dator, eta eskubide gehigarri bat izango du.
 - Partaidetza-ehunekoa: %100ekoa, batez besteko azaleraren osoko zatiarekin bat datozen eskubideak, eta eskubide gehigarriak zati zatikiarraren arabeko ehunekoa izango du.



ESKUBIDEEN KOPURUA ETA BALIOA. ADIBIDEAK

◀ ESKUBIDE NORMALAK ETA ERRETIRATZE-ESKUBIDEAK

ADIBIDEA:

Zenbatekoa: 12.000 euro

Azalera: 3,4 ha

Eskubide-kopurua – balio nominala (partaidetzaren %)

1 – 3.529,41 (%100)

1 – 3.529,41 (%100)

1 – 3.529,41 (%100)

1 – 3.529,41 (%100)

ESKUBIDEEN KOPURUA ETA BALIOA (2)

ESKUBIDE BEREZIAK. Hona hemen eskubideen kopurua eta balio nominala:

- ✓ Zenbateko murriztua ≤ 5.000 eurokoa bada:
 - Eskubide-kopurua: bat.
 - Balio nominala zenbateko murriztuarekin bat dator.
 - Partaidetza-ehunekoa: %100.

- ✓ Zenbateko murriztua > 5.000 eurokoa bada:
 - Eskubide-kopurua: zenbateko murriztua zati 5.000 egitean lortutako kopuruaren osoko zatia.
 - Balio nominala: 5.000 euro.
 - Partaidetza-ehunekoa: %100.
 - Osoko zatiketak hondarra badu, hondar horren berdina den balio nominaleko beste eskubide berezi bat izango du, eta partaidetza-ehunekoa %100ekoa izango da.



ESKKUBIDEEN KOPURUA ETA BALIOA. ADIBIDEAK



ESKUBIDE BEREZIAK

ADIBIDEA:

Zenbatekoa: 12.000 euro

Azalera: 0 ha

Eskubide-kopurua – balio nominala (partaidetzaren %)

1 – 5.000 (%100) berezia

1 – 5.000 (%100) berezia

1 – 2.000 (%100) berezia

ORDAINKETA BAKARREAN SARTUTAKO LAGUNTZA-EHUNEKOA

LAGUNTZA-LINEA		%
BELARKARAK	Zerealak	%75
	Oleaginosoak	%75
	Leguminosoen aleak	%100
	Proteaginosoak	%75
	Proteaginosoen berariazko laguntza	%0
	Borondatezko erretiratzea	%75
	Derrigorrezko erretiratzea	%100
	Gari gogorraren gehigarria	%75
	Gari gogorraren kalitate-prima	%0
	Energia-laboreen laguntza	%0
	Haziak	%0
	Oliba-olioa	%93,61 ⁽¹⁾
	Tabakoa	2006-2009 %38
		2010-... %100

(1) Erreferentzia-aldiko hektareen batez besteko kopurua (Informazio Geografikoko Sistema oleikolaren arabera) 0,3 baino txikiagoa bada, koefizientea %100ekoa izango da

ORDAINKETA BAKARREAN SARTUTAKO LAGUNTZA-EHUNEKOA

LAGUNTZA-LINEA		%
BEHI-AZIENDA	Behi ume-hazlea	%0
	Zekorren hilketa	%0
	Helduen hilketa	%60
	Idiskoen prima berezia	%93
	Estentsifikazioagatiko ordainketa	%93
	Ordainketa gehigarria	%93
ESNE-PRIMA	Esne-kuota	%90
	Ordainketa gehigarria	%90
BEHI- ETA AHUNTZ-AZIENDAK	Abelburuko prima	%50
	Alde behartsuetarako prima	%50
	Ordainketa gehigarria	%100

ORDAINKETA BAKARRA: LAGUNTZEN KENKARIAK

MODULAZIOA: (Zati bat itzuli egiten da, zenbateko gehigarri gisa)

2006: %4

2007tik aurrera: %5

Oharra: Estatuak modulazioa %20ra handitzeko aukera dute, landa-garapenerako politikak aurrera ateratzeko.

ERRESERBA NAZIONALA: Gutxienez, %3.

DOIKUNTZA ESTATUARI EZARRITAKO MUGA
GAINDITZEAGATIK. 2006an, kenkari hauek aplikatuko dira:

Orokorrean: %1,61

Estentsifikazioagatiko prima: %4,21

Behi-aziendagatiko ordainketa gehigarria: %4,62

Ardi- eta ahuntz-aziendengatiko prima gehigarria: %0,83

ORDAINKETA BAKARRA: LAGUNTZEN KENKARIAK

ATXIKIPEN GEHIGARRIA (69. art.): Ingurumen-egoeraren kalitatea eta hobekuntza sustatzeko ezarri beharreko atxikipena.

Tabakoa: %5

Esne-prima eta ordainketa gehigarriak: %10

Behi-aziendagatiko ordainketak: %7

FINANTZA-DIZIPLINA: (2007tik aurrera). Aurrekontu-gainezkatzerik gertatuz gero, kenkari gehigarriak egingo lirateke.

Horrez gain, Bulgaria eta Errumania sartzean, murrizketak egin beharko lirateke, %6-7koak, gutxi gorabehera.

ORDAINKETA BAKARRA: LAGUNTZEN KENKARIAK

ESKUBIDE-TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO ORDAINKETAK

- ✓ **Lurrik gabeko laguntza-eskubideak saltzea:**
 - Kasu orokorra:
 - %50eko atxikipena, 2006., 2007. eta 2008. urteetan.
 - %30ekoa, hortik aurrera.
 - Eroslea nekazari profesionala bada:
 - %15eko atxikipena, 2006., 2007. eta 2008. urteetan.
 - %10ekoa, hortik aurrera.
- ✓ **Laguntza-eskubideak saltzea, lurrekin: %5eko atxikipena.**
- ✓ **Hauetan, ez da atxikipenik aplikatuko:**
 - Ustiategi osoarekin batera laguntza-eskubideen salmentan.
 - Nekazaritza-jardueran hasten den nekazari bati laguntza-eskubideak saltzean, lurrekin edo lurrik gabe.
 - 795/2004 Erregelamenduaren 17. artikulua araberako salerosketetan.

ORDAINKETA BAKARRA: LAGUNTZA-ESKUBIDEEN ESLEIPENA

- ✓ 2006ko ordainketa bakarreko eskaera-dataraino, nekazariei emandako ordainketa-eskubideak **behin-behinekoak** dira.
- ✓ Esleipen hori behin betikoa izan dadin, beharrezkoa da eskubide horiek 2006an **aktibatzea**, eskaera bakarra aurkezterakoan.
- ✓ **Eskaera bakarra 2006. urterako soilik aurkeztu beharko da, otsailaren 1etik martxoko azken ostiralera bitartean.**
- ✓ Eskubideak aktibatzeko, **pertsonak nekazaria dela egiaztatu beharko du.**

Ordainketa Bakarreko Erregimenaren xederako, Euskadin, **pertsona batek nekazaria dela egiaztatzeko, titular edo titularkide gisa agertu behar du Foru Aldundietako Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan.**

Nekazaritza-jarduera aurretiaz uztea irizpide orokorretik kanpo dago; horrenbestez jarduerari utzi dion pertsonak ordainketa bakarreko eskubideak aktibatzeko aukera izango du, nekazaritzako erregistroan ez badago ere.

ORDAINKETA BAKARRA: LAGUNTZA-ESKUBIDEEN ERABILERA

- ✓ Azaleran oinarritutako eskubideen kasuan, ordainketa bakarreko laguntza jaso ahal izateko, beharrezkoa da **eskubide bakoitzari Espainiako estatuan** (Kanarietan izan ezik) **hektarea onargarri bat dagoela frogatzea**.
- ✓ Laguntza-eskubideen erabilerarako, ordena honetan erabiliko dira eskubideok:
 1. **Lehenengo eta behin, lurren erretiratze-eskubideak.**
 2. **Ondoren, laguntza-eskubide normalak, zenbatekorik handienekoak.**
 3. **Azkenik, erreserba nazionalako laguntza-eskuideak erabiliko dira.**

HEKTAREA ONARGARRIA

Ustiatetikoko nekazaritza-azalera da; alegia, labore-lurren eta larre iraunkorren azalera. Basoak, baratze-laboreak, patata-sailak eta nekazaritzako jardueretarako erabiltzen ez diren lurak ez dira hektarea onargarritzat hartzen.

ORDAINKETA BAKARRA: LAGUNTZA-ESKUBIDEEN ERABILERA

- ✓ Urte jakin batean ez bada eskubideen %100 erabiltzen, **hurrengo urteetan eskubideak erabiltzeari dagokionez, aurrerago erabilitako eskubideak hartuko dira aintzat, lehenengo eta behin**, aurrerago deskribatutako irizpideen arabera.
- ✓ Eskubide bereziei dagokienez, azalerarik ez badago edo azalera nahikoa ez bada, beharrezkoa da **erreferentzia-aldian garatutako abeltzaintza-jardueraren %50i eustea, gutxienez, azienda larri unitatetan (ALU) adierazita**.
- ✓ Hainbat eskubide izanda guztiak erabiltzen ez badira, urte bakoitzean erabilitako eskubideak identifikatu beharko dira. **Eskubide bat 3 urtean erabiltzen ez bada, erreserba nazionalera igaroko da.**

ORDAINKETA BAKARRA: LAGUNTZA-ESKUBIDEEN ERABILERA

Esleitutako eskubideak dituzten nekazariak **denbora-aldi jakin batean erabili behar dituzte**; bestela, galdu egingo dituzte, eta erreserba nazionalera igaroko dira. Horretarako, bi minimo daude: esleipen propioko eskubideei dagokiena eta erreserba nazionalako eskubideei dagokiena. Hona hemen minimoen azalpena:

- **Esleipen propioko eskubideak:** 3 urteko denbora-aldian erabiltzen ez diren eskubideak erreserba nazionalan sartuko dira, ezinbesteko kasuetan edo salbuespenezko zirkunstantzietan izan ezik.
- **Erreserba nazionalako eskubideak:** Eskubideak esleitu eta lehenengo 5 urteetan erabili behar dira eskubideak, eta, aldi horretan, ez da haiek lagatzeko aukerarik izango. Bost urte horietako bakoitzean erabiltzen ez badira, berehala itzuliko dira erreserba nazionalera.

Eskubide bat erabili egin dela ulertuko da, eskaera eta eskubide horri dagokion ordainketa egin bada.

ORDAINKETA BAKARRA: ESKUBIDEEN LAGAPENA

- ✓ Erretiratzeagatik laguntza-eskubideak lagatzen badira, lurrak ekoizpenetik kendu beharra du lagapen-hartzaileak.
- ✓ Eskubideen lagapenak bere mugak ditu:

Ekoizleen ezaugarrien ondoriozko mugak:

- Gutxienez, esleitutako eskubideen %80 erabili behar da, urte natural batean.
- 5 urte baino gehiagoko antzintasuneko erreserba nazionalako eskubideak izan behar dituzte ekoizleek.

Eskubideen lagapen-motaren ondoriozko mugak:

- Eskubideak alokatzeko, hektarea onargarrien kopuru berak egon behar du eskubideekin batera.
- Eskubideak lurrekin edo lurrik gabe sal daitezke.

USTEKABEKO IRABAZIA

- ✓ Erreferentzia-aldian edo **2004ko maiatzaren 15a baino lehen** ustiategia, horren zatia edo primarako eskubideak saldu edo 5 urterako edo gehiagorako alokatuz gero, **honako zenbateko hauek igaroko dira erreserba nazionalera:**
 - a) **Salmenta-kasuan, erreferentzia-zenbatekoaren %90,** saltzaileari kalkulatuta.
 - b) **Bost urteko alokairuaren kasuan, erreferentzia-zenbatekoaren %5,** alokatzaileari kalkulatuta. Bost urte baino gehiagoko alokairua bada, %5 gehituko da urte gehigarri bakoitzeko, betiere, erreferentzia-zenbatekoaren %20 gainditu gabe.
- ✓ Ez da inolako atxikipenik aplikatuko, aipatutako salmenta edo alokairua egin eta urtebeteko epean (baina ez 2004ko maiatzaren 15a eta gero), erosleak edo alokatzaileak beste ustiategi bat edo horren zati bat erosten edo bost urterako edo gehiagorako alokatzen badu.

LAGUNTZA-ESKUBIDE BEREZIEN LAGAPENA

- ✓ Laguntza-eskubide bereziak lagaz gero, lagapen-hartzaileak, salbuespen horretaz baliatu nahi badu, laguntza-eskubide berezi guztiak laga behar ditu.
- ✓ Nekazari batek laguntza-eskubide berezien zati bat lagatzen badu, beretzat geratutako zatiak eskubide bereziaren izaerari eutsiko dio. Kasu horretan, berriro kalkulatuko dira geratzen zaizkion eskubideak kobratzeko nekazariak izan behar duen gutxieneko ALU kopurua.
- ✓ Eskubide berezien lagapen partziala eginez gero, lagatako eskubideek eskubide berezien izaera galdu eta eskubide normalak izatera igaroko dira. Laguntza-eskubide berezi guztiak lagatzen badira soilik eutsiko diote eskubide berezien izaerari.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

NEKAZARITZA, ARRANTZA
ETA ELIKADURA SAILA

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,
PESCA Y ALIMENTACIÓN

REFORMA DE LA PAC: PAGO ÚNICO 2005-2013

NPBaren ERREFORMA: ORDAINKETA BAKARRA

ESKERRIK ASKO



Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia
Departamento de Agricultura Nekazaritza Saila



Bizkaiko Foru
Aldundia
Nekazaritza
Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de
Agricultura



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua
Departamento para el Desarrollo del Medio Rural